



# ***"Klarari Gutunak"***

Bigarren Hezkuntzako Ikasleentzako kontzertu didaktikoa

Musika ikuskizuna orkestra, piano eta narratzailerako

Musika kontakizuna eta gida didaktikoa: Belén Otxotorena

# "Klarari Gutunak"

Bigarren Hezkuntzako Ikasleentzako kontzertu didaktikoa  
Musika ikuskizuna orkestra, piano eta narratzaileko  
Musika kontakizuna eta gida didaktikoa: Belén Otxotorena



## **Musika:**

**ROBERT SCHUMANN**

*Do maiorreko Fantasia Op. 17* (lehen mugimendua)

*Bigarren Sinfonia* (hirugarren mugimendua)

*Hirugarren Sinfonia* (lehen eta laugarren mugimendua)

*Laugarren Sinfonia* (bigarrena, hirugarrena eta laugarrenaren amaiera)

*Inauteria Op. 9* (Chopin, Chiarina, Florestán eta Eusebius)

*La minorreko Kontzertua piano eta orkestrarako Op. 54* (Allegro maitekorra)

**KLARA SCHUMANN**

*Robert Schumannen tema baten gaineko aldaerak, Op. 20*

## **JARDUNAK**

### **Chrysanthemum**

Izen arrunta: Krisantemo. "Japoniar jatorriko lorea, hosto urrintsu eta loratze ikusgarria dituena"

### **Myrtys communis**

Izen arrunta: Mirto. Lore zuria, antzina ospetsua maitasunaren eta edertasunaren sinboloa zelako".

### **Viola tricolor**

Izen arrunta: Pentsamendua. "lore urdina, diuretikoak, demultzentea eta antiinflamatorioa".

### **Dahlia spp**

Izen arrunta: Dalia. "Mexikar jatorriko lorea, ustez fantasiaren almena duena".

### **Sempervivum arachnoideum**

Izen arrunta: Betibizi. "Hezetanaren nahiz tenperaturaren edozein aldaketari aurre egiten dion lorea".

### **Gladiolus**

Izen arrunta: Gladiolo. "Greziarrek eta erromatarren landutako lorea; *gladius* (ezpata) hitzaren txikigarria".

### **Encyclia cochleatum**

Izen arrunta: Orkidea. "Edertasun handiko lorea, ahalmen afrodisiakoa omen duena".

### **Lilium candidum**

Izen arrunta: Zitori. "kolore zuriko lorea, zolitasuna, garbitasuna adierazten duena".

### **Viola odorata**

Izen arrunta: Bioleta. "Bost hosto dituen lorea, ezinez esaten zaiona *tximeleta legal mazustez tindatua*"

## Robert Schumann



Wolfgang Amadeus Mozarten jaiotzaren urteurrenaren inguruko ospakizunek itzal eginda, 2006an Robert Shumannen heriotzaren 150. urteurrena ospatzen zen, ia oharkabean igaro bazen ere.

Hala eta guztiz ere, egun ere, Robert Schumann (1810 – 1856) bere garaiko ahots disonantea da, lanean bezala bizitzan ere erromantiko petoa zen gizona, begirada konformagaitzekoa, egiazko jenio baten aurrean gaudela ohartarazten diguna.

Dudarik gabe, ospatzeko modukoa da Robert Schumannen argitasuna Beethovenen handitasuna goretsi baitzuen, ezinezkoa zirudielarik Johannes Brahms izugarri gaztearen alde agertu zelako, edota berak "artearen filisteoak eta tradiziorik azalekoenaren adiktoak" deitzen zituenen aurka egin zuelako.

**"Música en acción"** egitarauak eta Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak merezi duen omenaldia egin nahi izan diote inoiz izan den musikagile handienetako bati.

## Gida Didaktikoa

“**Klarari Gutunak**” du izena Robert Schumannen musika Bigarren Hezkuntzako ikasleengana hurbiltzeko aukeratu dugun kontzertuak.

Kontzertu bat bertatik bertara entzutea beti ere gauza zoragarria da, baina oraingo honetan, Pablo Sarasate Orkestra Sinfonikoa aditzeko aukera are politagoa izan dadin, gida didaktiko hau prestatu dugu, kontzertuko zenbait eduki aurrez ematearren eta etorriko direnen aperitibo pizgarria izan dadin.

Gidaren egitura, berriz, irakasle bakoitzari bere ikastaldearen arabera interesgarriena edo egokiena iruditzen zaion jarduna aukeratzeko moduan prestatua da.

Jardunak independenteak dira eta bakoitzak lore baten izena du izenburutako.

Loreek leku berezia izan zuten bai Robert Schumannen bizitzan, bai eta haren emazte Klara Wiecken bizitzan ere. Senar-emazte izan ziren denboran, maiz oparitu zizkion loreak musikagileak pianistari, eta beste hainbeste egin zuen Klarak, senarra Bonn inguruko psikiatria zentro batean sartua egon zen garaian.

Gainera, bere lanei izenburua jartzeko orduan loreak aukeratu izan zituen maiz: *Lore bakartiak; Mirtoak, 26 kantu ahots eta pianorako; Bouquettes Romantiques...*

Horregatik iruditu zaigu interesgarria gida honetako jardunak hainbat loreren ezaugarriekin lotzea. Gida hau zuen lagungarri izatea nahi genuke, eta honen urrina ikasgeletan hedatzea, biharko eguneko arrakastaren iragarpen gisa.



## JARDUNAK



### **Chrysanthemum**

Izen arrunta: Krisantemo. "Japoniar jatorriko lorea, hosto urrintsuak eta loratze ikusgarria dituena.

Ertamerikan, krisantemoak oparitzea maitasun adierazpen erromantikoa da, baina Europan, aldiz, Domu Santu eguneko lore nagusia da.

Hortaz, hauxe esan genezake, alegia, lore kontraesankorra dela, bizitza eta heriotza adierazten dituena, argia eta itzala, zantzu onak eta txarrak.

Seguruenik, Robert Schumann arrunt identifikatua sentituko zen halako ezaugarriak dituen lore batekin.

Umetatik izan zituen aldarte gorabehera etengabeak areagotu egin ziren bere bizitzaren azken sei urteetan. Ezin ahaztu dugu bere burua hiltzen saiatu zela Rhin ibaira botata eta, arrantzale batek ateratzen bazuen ere, osasun etxe batean sartu zen azkenean, bere borondatez.

**1 ERANSKINEAN** duzu Robert Schumanni buruz idatzi diren biografia anitzetako bat. Haren bizitza, behinik behin, interesgarriaren bertsio laburra bada ere, aski da antzemateko musikagilearen eta lore kontraesankorraren arteko antzekotasunak.

Izan ere, sen onetik eromenera etengabeko gorabeheran ibiltzen zen izaera atsekabetuaren erakusgarri bete-betea baita Robert Schumennen musika.

Kontzertuaren egunean izanen dugu hainbat adibide entzuteko aukera, hara: laugarren *sinfoniaren* dramatikotasuna, haren *sonata* ospetsuaren alaitasuna, pianorako *konzertuaren* konpas pasioz beteak...

Letra etzanean idatzitako hitzetako termino bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

**2 ERANSKINEAN** aurkituko dituzu erromantizismoarenak diren *musika moldeak* eta *sonataren, kontzertuaren eta sinfoniaren* berezko ezaugarriak.

Hona gure proposamena: aukera ezazu musikagile honen lanetatik gogokoa duzun bat, baina argi izanda zein *musika moldekoa* den. Ondoren, gelara eramaten ahal duzu, ikaskideek entzun dezaten eta ea gauza diren antzemateko lied, sinfonia, sonata ote den...

Landutako forma desberdinak: azalpena, berrazalpena..., eta haien barne egitura aztertzea ere interesgarria litzateke.

Musikagileak, partituran oharrak idatzi ez ezik, tentuz aztertzen du tema noiz azaldu, nola garatu eta zein unetan amaitu, lan hori une oro interesgarria izan dakion entzuten duen jendeari. Edozein eleberri edo antzerki lanetan agertzen diren planteamendua, muina eta amaiera direla esan genezake.

### Jardunaren osagarria

Egitura aristoteliko hori duen lan bat aukeratu eta istorio bat asmatu. Ziur musikak kondaira polit anitz eta orijinalak iradokiko dizkizuela.



### Myrtus communis

Izen arrunta: Mirto. "Lore zuria, antzina ospetsua maitasunaren eta edertasunaren sinboloa zelako".

Maitasuna eta edertasuna kontzertu honi estu loturik daude. Schumann senar-emazteen artekoa Musikaren Historian izan den maitasun harremanik gartsuenetakoa da.

Klararen edertasuna, berak bere burua inoiz edertzat izan ez bazuen ere, garai hartako erretratuetan eta adierazpenetan ageri da argi.



Gainera, *Mirtoak*, 26 kantu ahots eta pianorako, Op. 25, ezkontzaren bezperan Robertek Klarari egin zion oparia izan zen.

Honako hitz hauez eskaini zizkion:

**“Onar itzazu, beraz, zeuretzat, maite horrentzat, nik kantatzen ditudan kantu hauek”.**

Klarak, berriz, hala idatzi zuen bere egunerokoan:

**“Robertek beste opari eder bat egin zidan: *lieder* (kantuak) bilduma bat, eta gainera, mirto sorta bat; eta haiek ukitu nituelarik, halako zorion zirrargarri bat jabetu zen nitaz”.**

Berrogeiko hamarkada hauxe, haren bizitzan zoriontsuenetakoa izateaz gain, kantuen ekoizpenari dagokionez ere izugarri oparoa izan zen: hirurehun bat, *poetaren bizitza, andre baten bizitza eta amodioak* eta lehen aipatutako *Mirtoak* bildumetan jasoak.

Pianoaren laguntza zoragarriak ahotsaren melodia ederrak jaso egiten ditu freskotasun eta poesia dohain handiz, erromantizismo alemaniarrari ateak zabalduz.

Musika genero guztietatik kantua da entzule gazteek hurbilen sentitzen dutenetako bat. Egile garaikide anitzek letrak eta melodiak idazten dituzte unean uneko kantariantzat, maiz amodioa dela protagonista bakarra.

Interesgarria litzateke ikasle bakoitzak bere kantari gustukoenetako baten kantu bat aukeratzea, kantu erromantikoa, jakina.

Ondoren, ikasgelan, *Mirtoak* bildumako kantuetako bat entzunen dute ikasleek (badira grabaketak kantuak alemanetik gaztelaniara itzulita) eta bi estiloen antzekotasunak eta berezitasunak antzematen saiatuko dira: testu mota, garapen mota, errepikapen mota, estribilloa, tonalitatea, modalitatea...

Oso interesgarria da modalitatea aztertzea kantu mota honetan. Batzuetan, kantu erromantikoek zama malenkoniatsua izaten dute, modu minorrean pentsatzera eramaten gaituztenak, baina teoria hau ez da beti betetzen. Gainera, bada uste oso zabaldu bat, modu minorreko konposizio bat tristea izan behar duelakoa, eta modu maiorrekoa, berriz, alaia behar duelakoa.

Uste hori, jakina, erabat subjektiboa da, eta litekeena da zuen gelan iritzi arras kontrajarriak aurkitzea.



## Viola tricolor:

Izen arrunta: Pentsamendua. "Lore urdina, eragin diuretiko, demulzentea eta antiinflamatorioa dituena".

Friedrich von Hardenberg (1772-1801), Novalis ezizenez, erromantizismo alemaniarren erakusgarri handienetakoa da. Berak betekotu zuen "lore urdina" terminoa (die blaue blume), artearen esentzia barne munduaren eta kanpokoaren arteko errekontziliazio gisara, alegia, kontzeptua konkretuan gauzaten duena sinbolizatu nahian. Izan ere, helburua iritsi nahi eta ezin hori hezuramaitzen du, nonbait, Poesiak.

Erromantiko alemaniarrek beren lehen inspirazio iturria Europako bi pentsalari handiren lanean aurkitu zuten, alegia, Jean Jacques Rousseau filosofo frantziararen eta Johann Wolfgang von Goethe idazle alemaniarren lanetan.

Gauza jakina da erromantizismo alemaniarren harreman handia izan zela literatura eta musikaren artean. Garai hartako poesiak konposizio musikalaren inspirazio iturria da, eta adierazpenik gorena *lied* delakoa da, **Frantz Schubertek**, **Hugo Wolfek**, **Robert Schumanek** eta **Johannes Brahmsk** eraman zutena perfekziora, alemaniar poeta onenen testuez.

Erromantizismo garaian, irudimena arrazoibideari gailentzen zaio, emozioa logikari, eta sena zientziari. Leku exotikoak eta ezezagunak dituzte kuttunenak, eta naturaz gaineko indarrak ere bai, eta gai gustukoenetakoa maitasun ezinezkoa dute.

Klarak eta Robertek bizipen atsekabetu hori bizi izan zuten, harik eta 1840ko irailaren 12an ezkondu ahal izan zuten arte. Robert hil zenean, antzeko gauza bat gertatu zen Klara eta Johannes Brahmsen artean, historialariek oraintsu onartu duten amodiozko istorioa bizi izan baitzuten. Dirudienez, José Hierrok, garai hartako poetak, bere amonetako bati entzun zion istorioa, eta ondoren poema eder hau eskaini zien biei:



### **Brahms, Clara Schumann**

Eres mi amor, Paula, mi amor. Clara quise decir.

Y cuánto tiempo Paula, digo Clara,  
sin ti y sin mí. Las diligencias parten sin ti y sin mí.  
Y a ti te llevan hacia el norte, hacia el pobre Robert,  
a mí, hacia el sur, contigo, hacia el sur,  
donde ya no estabas, donde nunca estarías.  
ahora he tomado el tren para decirte adiós.

Y sueño, sueño mío.

(...)

No queda nadie ya que pueda perdonarte,  
que pueda perdonarme, perdonarnos.

Nadie que pueda rescatar los besos que se pudren  
sobre Robert y su locura piadosa.

Ahora que voy a ti, a encontrarte en la aduana de la muerte,  
pienso, Clara, amor mío, que cuando nos besábamos  
era a Robert a quien besábamos, al engañado  
hijo de nuestro amor. Él murió un día.

Su esposa, tú, amor mío, Clara, también has muerto ahora.

Yo tomé el tren para encontrarme en la frontera  
para decirte adiós desde el lado de acá de la muerte,  
amor de mi vida.

(...)

Ya nunca llegaré a tu lado.

Puede ser, amor mío, que no te amara ya,  
que no te hubiese amado nunca,  
que sólo hubiese amado a mi propio amor,  
al amor que te tuve, Clara, amor mío.

**José Hierro, de *Agenda*, 1994**

Johannes Brahmssek beti isilka eraman izan zuen Klararekiko maitasuna; inoiz ez zuen pentsatu bere sentimenduak platonikotik haratago eramaterik. Berrogei urte iraganen zituen amodio ezinezko baten itzalpean, behin ere sosegurik eman ez zion oroitzapen tinko eta suhar batek loturik.

Bere gutunetako batean honela idatzi zuen:

**“Hain lagun maitea zara niretzat, ezin adierazi dut... honek hala jarraitzen badu, beiraren baten atzean kokatu beharko zaitut, edo dirua aurreztu zu urrez josteko.”**

Jose Hierroren poemak era miresgarrian berrosatzen ditu Brahmsen sentimenduak, izan ere, arrunt trebeak izaten baitira poetak sentimenduei hitzak jartzeko tenorean.

Gizaki guztiok izaten ditugu, alde-aldera, antzeko sentimenduak: poza, tristura, amorrua... hala ere, zenbait egile gure baitan leudekeela ematen du. Zirrargarria da poesia irakurtzea eta, bat-batean, zuk une horretan sentitzen duzuna norbaitek zoragarri adierazten dituela aurkitzea.

Ikertu ezazu poeta erromantikoen estiloa, bila ezazu zure izaerarekin bat datozen poemak, zure sentimenduen hurbilekoak. Ez ezazu galdu zu ulertzen zaituen poeta hori aurkitzeko aukera, gozamen paregabea da.

Behin idazle hauen ezaugarri nagusiak aztertuta, zeure amodiozko poema idatz dezakezu, baina kontuz! Ez da beharrezkoa poema hauek ozenki irakurtzea, ez eta irakasleari ematea ere; poema bat idaztea ekintza barnekoa baita, pribatua, inorekin konpartitu behar ez dena, norberak hala nahi ez badu, behinik behin.

Ekin, bada! Aurki ezazu barnean daramazun izaera erromantikoa!



## Dahlia spp

Izen arrunta: Dalia. "Jatorri mexikarreko lorea, fantasiaren ahalmena omen duena".

*Do Maiorreko Fantasia Op. 17* izeneko lana musikaren historiako maisu-lanik handienetakotzat dute anitzek. Ideal erromantikoa, alegia, formaren maisutasuna eta goratasun espirituala, bikain uztartzen diitu.

Sortu zenean, Ludwig Van Beethovenen oroitzapenari eskainitako pianorako sonata zen, baina, eskaintzak argitzen duenez, Schumannek Klara Wieck pianistarenganako zituen sentimendurik sakonenak azaltzen ditu, hari eskaini baitzion lan hau.

**“Zu ikusteko irrika bizian nago, nire bihotzean estutu nahi zaitut... (...) Badakit zu hemen ez izateak aldixartzen nauela. Edonon irudikatzen zaitut. Nire ganberan alde batetik bestera zabilta nire ondoan. Nire besoetan zaitut. Baina ezer, ezer ez da egiazkoa... Gaixorik nago... eta ez dut hau luze jasaterik izanen”.**

*Do Maiorreko Fantasia Op. 17* hiru mugimenduk osatzen dute:

Lehenbizikoa aztoratua eta oso grinatsua da. Schumannek lanaren eskuizkribua bidali zion bere maiteari, bertan ohartarazten ziola:

**“Lehenbiziko mugimendua da, beharbada, egundaino konposatu dudan lanik pasiozkoena, zureganako arrangura sakona”.**

Bigarrena martxa antzekoa da. Honela erantzun zion Klarak Paristik:

**“Lanak hotzikara eragiten dit... irudi asko heldu zaizkit... borrokaldiaren ondoren heldu diren gerlarien garaipenaren modura heldu zait martxa, eta La Bemol Maiorreko temak herrixka bateko neskak ekartzen dizkit gogora, guztiak zuriz jantziak, eskuetan girlanda bana daramatela, euren aurrean belauniko jartzen diren gerlarien buruetan jartzeko prest.”**

Hirugarrena motela eta barnekoia da, ezohiko baliabidea sonata batean, baina Beethovenek ere ordurako erabilia zuena, lanari, *gran finale* batek berez birtuosismorako duen nahikeriatik aldendurik, halako sakontasun artistiko handiagoa ematen diona.

Kontzertuaren egunean lan honen lehenbiziko mugimendua entzunen dugu. Tema nagusia goitik beherako bost noten eskala baten inguruan osatua dago, Schumannek nahita lotzen baitzuen motibo musikal hori **KLARA** izenarekin. Ondorengo hainbat konposiziotan ere erabiliko zuen eskala hori, isilpeko kode gisa.

Orain zuen irudimena frogatuko dugu.

Hona gure proposamena, ikasle bakoitzak maite duen pertsonaren izena har dezala, edo bestela, gustukoa duen izen bat.

Behin aukeratu ondoren, letra bakoitzari musika nota bat lotuko diogu, eta nota horiekin jolasean ariko gara, zortzi konpaseko segida melodikoa egin arte, lau bider lauan, alegia, lan honen lehenbiziko mugimenduaren denboran.

Kontua zera da, melodia txiki bat osatzea, gero irakasleak edo piano ikasleren batek jo dezan. Ederra litzateke, bestalde, konposizioa eskainia izatea, estilo “schumanndar” peto-petoaren arabera.

Hona hemen horietako bat, maitasun adierazpen egiazkoa.

**“Su maravilloso y feliz rostro  
llevo en el fondo de mi corazón,  
Su mirar tan fresco y alegre  
hacia mí a toda hora.**

**Mi corazón calmo le canta  
una vieja y hermosa canción,  
que en el aire resuena  
y se pone a su lado”.**



## **Sempervivum arachnoideum**

Izen arrunta: Betibizi. “Hezetasunaren nahiz tenperaturaren aldaketei ongi aurre egiten dien lorea”.

Klara Shumannek, XIX. mendeko pianistarik handienak, berak ere merezi du definizio hori.

Begi argiak eta begirada gozoa zituen emakume hau indar espiritual handikoa zen, eta hala eraman ahal izan zuen artista gisa bizitza gogorra eta alor pertsonalean tragediaz betetakoa: izan ere, lehenbizi gurasoengandik bereizi, hainbat seme-alaba umetan galdu zituen, eta azkenik senarrak bere buruz beste saiatu eta ondoren hil egin zen. Ez baita samurra!

Garai hartako pertsonaia handi zenbaitek miretsi egin zuten emakume hau, besteak beste Goethek, Lisztek, Mendelssohnek, Chopinek, Paganinik... hala ere, berak ez zuen askorik sinisten musikagile gisa zituen dohainez:

**“Inoiz edo, sortzeko dohaina banuela uste izan nuen, baina uko egin diot ideia horri; emakume batek ez du konposatu behar. Bakar bat ere ez da gai izan hori egiteko eta, zergatik izanen nintzen neu?” .**

Bere garaiko emakume gehienak etxeko lanez arduratzen ziren, edo eskolak ematen edo eskenatokitik urrun ziren bestelako musika-jardunetan aritzen ziren. Berak, ordea, bere lanbidearen goi mailan jarraitu zuen hil baino urte gutxi lehenago arte ere.

Berrogeiren bat kontzertu-jira egin zituen kontinente europarrean barna, garraiobideek egungoa bezalako erosotasunik eskaintzen ez zuten garai batean. Leku guztietan ohorerik handienez hartzen zuten, eta gainera, duintasunez kobratzen zuten, alegia, garaiko beste edozein birtuosoren moduan, ia beti familiaren euskarri bakarra izan baitzen.

Pianorako musika idatzi zuen, piano eta ahotserako kantua, ganbera-musika eta orkestrarako lanak ere bai.

Kontzertuaren egunean haren konposizioetako bat entzuten dugu: *Robert Schumannen tema baten gaineko aldaerak*, *Op 20*, senarrari eskainia eta istorio mamitsua duena:

Robertek 1841ean konposatutako lan bat du tema nagusitzat, *Bunte Blätter* izenekoa, hain zuzen.

Klararen lana 1854an argitaratu zen, ordurako senarra ospitalean zela, bere buruaz beste egiten saiatu ondoren.

Hainbat urte iragan ondoren, Johannes Brahmssek erabili zuen bere *Opus 9an*. Honela idatzi zuen eskuizkribuan:

**“Haren tema baten gaineko aldaera txikiak, hari eskainiak”.**

Tema honako hau da:



Transkripzioa: Javier Irigoien

[http://sepiensa.org.mx/contenidos/l\\_clara/clara\\_4.htm](http://sepiensa.org.mx/contenidos/l_clara/clara_4.htm) orrialdean aurkituko dituzue lan honen zortzi aldaera.

Temaren melodiatik abiatuta, honako hauek egin ditzakezue:

- aldaeren entzunaldi aktibo bat.
- zentzu kritikoa garatu eta interesgarriena irizten diozuen aukeratu.
- aurkitu zein den aldaera bakoitza gehien definitzen duen ezaugarria: sobera apaindua, soila, joria...
- aldaera bakoitzean erabilitako musika-baliabideak zehaztu.
- melodia kantatu eta interpretatu instrumenturen baten laguntzaz.
- Erritmoa, kadentzia...
- Akonpainamendu desberdinak inprobisatu, ikasgelan aurkituko dituzuen perkusio txikiko instrumentuez.

### Jarduera honen osagarri

Hasieran esan dugun moduan, Klara Schumann indar eta adimen ereduia izan zen, emakumeak etxeko lanak egin ia beste ezer egiterik ez zuten garai hartan. 3 ERANSKINEAN aurkituko duzu informazioa Historian emakumeek musikaren alorrean izan duten lekuari buruz. Informazioa XIX. mendean amaitzen da baina, zer gertatu zen XX. Mendean, eta zer gertatzen ari da egun?

Hona hemen gure proposamena: bila ezazu informazioa XX. mendeko emakume musikagileei buruz, eta entzun itzazu haien lanak. Egun, emakume anitzek egiten dute beren bidea musikan beren kabuz, eta unean uneko musika eskaintza zabalean euren lekua aurkitu dute. Bila itzazu egungo emakume musikagileen izenak, musika estilo desberdinetakoak: klasikoa, pop, rock... eta ikaskideekin solastu zaitez horiei buruz.

Interesgarria litzateke eztabaida egitea emakumea musikaren mundura eta, oro har, lanbideen mundura sartzeak ekarri dituen abantailei buruz.



### Gladiolus

Izen arrunta: Gladiolo. "Greziarrek eta erromatarrek landutako lorea; *gladius*, "ezpata"ren txikigarria da.

Gladioloa arro mediterraneanarretik eta ipar Afrikatik datorren lorea da. Jatorrizko izena *gladius*, "ezpata", hitzaren txikigarria da. Alde batetik hostoaren itxura adierazten du, luzexka eta punta zorrotza duena baita, eta beste aldetik gogora ekartzen du lorea, erromatarren garaian, borrokan gailentzen ziren gladiadoreei ematen zieten. Horregatik da lore hori garaipenaren sinboloa.

Schumanndarrei buruz, berriz, zera esan genezake, zorigaitzak zorigaitz, suertatu zitzaizen bizitza gorabeheratsuan irabazle atera zirela. Haien amodiozko istorioa bezalako gutxi izan da, eta euren musika, senar-emazteen kezkarik handienetakoa, urteetan barna iraun du, ederki iraun ere.

Musikari esker Europa osoan barna ibiltzeko aukera izan zuten. Hiri anitz bisitatu zituzten, antzoki antzetan jo zuten, bai euren lanak bai euren garaiko nahiz aurreko garaietako musikagileen lanak eskainiz.

Hamburg, Berlin, London, Paris, Utrech, Viena, San Petersburgo... guztiak ere kultura aldetik bizitasun handiko hiriak dira, urteetan mantendu den bizitasuna, gainera, eta bi maitale haien pozaldi eta atsekabeen lekuko izan ziren.

Udako oporraldia gogoratzeko edo hurrengoak hurbilarazteko asmoz, hona hemen aukera zeuek ere, bizitzan behin bada ere, gida turistikoak izan zaitezten.

Taldeka, arestian aipatutako hiri horietako baten gaineko informazioa bilatuko duzue: kokapen geografikoa, hizkuntza, moneta, hara bisitan joateko gomendatu litezkeen jantziak eta oinetakoak, historia laburra, ostatu hartzeko aukerak, leku interesgarriak, monumentuak, lorategiak, antzokiak...

Behin informazioa lortuta, taldeek ordezkari bat aukeratuko dute gidari lanak egin ditzan, eta gainerakoek lagundu egingen diote.

Azalpenarekin batera inguru hartako musika eskaini behar dute, musika kultua nahiz herri-musika.

Beste ikaskideek, berriz, ohiko turisten modura ibiliko dira, batzuek adi egonen dira azalpena entzuten, beste batzuk ez, argazkiak atera, janaria dela eta protestaka aritu...



## Encyclia cochleatum

Izen arrunta: Orkidea. "edertasun handiko lorea, ahalmen afrodisiakoa duena".

Klarak eta Robertek ez zuten, noski, orkidearen beharrik euren grinari bide emateko. Horren froga da bikoteak izandako hamar seme-alabak. Haietako bi oso gazterik hil ziren, baina bizi izan ziren gainerako zortziak ere aho anitz ziren bazkaltzeko tenorean.

Guztiek ere izan zuten, gainera, musika heziketa bikaina, euren bilobek bezala (haietako bat Klararekin batera egon zen hura hilzorian zela, ohe ondoan, Schumannen lanak pianoan jotzen).

Euren seme-alabak eta musika ikasten duten guztiak gogoan zituela, hain zuzen ere, konposatu zituen Schumannek lan erraz anitz, ondorengo musikarien ikasbidea errazteko asmoz, besteak beste, *Gazteendako bilduma*, *Umeen eszenak*...

Harentzat musika zen bizitza osoa, eta besteei horixe azaltzen saiatzen zen. Behin hala esan zuen.

**“Musika da haratagoko munduarekin komunikatzeko aukera ematen didan hizkuntza”**

Historiako pertsonaia ospetsu anitzek esan izan dituzte esaldi gogoangarriak musikari buruz. Hona hemen zenbait adibide:

**“Hizkuntza amaitzen denean hasten da musika”.**

E.T.A. Hoffmann (1776-1822) Idazle, margolari eta musikari alemaniarra.

**“Musika da arterik zuzenena, belarritik sartu eta bihotzera doa”.**

Magdalena Martínez (1963-) Txirulari espainiarra.

**“Bakardadea, bat-batean, betetzen dela sentitzen du musika entzuten duenak”.**

Robert Browning (1812-1889) Poeta ingelesa.

**“Gorputzarentzat soinketa nola, hala da musika arimarentzat.”**

Platon (k.a. 427-k.a. 347) filosofo greziarra.

Eta zuretzat, zer da musika?

Zuetako bakoitzarentzat gauza desberdina izanen da musika, seguruena. Batzuk musika eskolaren bateko ikasleak izanen zarete, edo kontserbatoriokoak, beste batzuk lagun bat edo etxeke norbait izanen duzue musikari, eta beste batzuk, besterik gabe, zuen talde begikoenaren kontzertua noiz iritsiko amorratzen egoten zarete...

Interesgarria litzateke, jardunaren hasieran aipatu ditugun lanetako konposizioen bat entzuten duzuen bitartean, esaldi batean deskribatzen saiatzea musika zer den zuentzat. Esaldi mamitsua egin beharko duzue eta, beraz, ongi begiratu beharko duzue zein hitz erabiltzen dituzuen. Ez ezazue erraz aldera egin, izan ere, eginahalak egiten badituzue, ziur esaldi orijinala eta adierazgarria egingen duzuela.





## **Lilium candidum**

Izen arrunta: Zitori. "Lore zuria, xalotasuna eta garbitasuna adierazten duena".

Erdi Aroko eta Errenazimentuko margolan erlijiosoetan zitori lorea purutasunaren sinbolo gisa agertzen da.



**Anonimoa**

Erromantizismo alemaniarra funtsean literarioa zen, baina Erdi Aroko lan horietan aurkitu zuen bere adierazpenik esanguratsuen margo aldetik, Jainkoa naturarekin identifikatzen zuen printzipio panteista islatzen baitzen han.

Erljiioak markatutako testuinguru horretan, nabarmena izan zen **Caspar David Friedrich** margolari eta filosofoaren sorkuntza-lana. Robert Schumannen garaikide hau alemaniar erromantizismoaren erakusgarri gorena izan zen, eta haren lanean nabarmena da ezkutuko bazterren bilaketa, naturaren agerpena bilakatzen zelarik jainkozkoaren eta gizakizkoaren arteko batasuna.



**Caspar David Friedrich (1774- 1840)**

Erromantikoek era guztietako jarrerak izan zituzten erlijioaren inguruan. Hala ere, sinismena ez dute erromantikoek ezarritako inongo arautan jartzen, ez eta inongo moralean, barne sentimenduan baizik, horrek lotzen baititu komunikazioan norbanakoa eta unibertsoa, jainkozkoaren berezko sena, Jainkoarekiko batasun mistikora eramaten duena.

Proposamena:

- konpara itzazu lan hauek egilearen ikuspegitik, margoa, garaia, sinbolismoa, gaia, estiloa...
- bila ezazu informazioa euren lanetan erlijio gaia maiz erabili duten margolariei buruz.
- beste kultura batzuetan alderdi erlijiosoa landu duten margolariei buruzko ikerketa lana egin.
- ikasgelan egon litezkeen erlijioen ezaugarri nagusiak azaldu, eta solastu Historian zehar, eta egun ere, erlijioek eragiten dituzten gatazken inguruan, ea zer iritzi duten ikasleek.
- ikasleen sinismen mota desberdinak azaldu.



## Viola odorata

Izen arrunta: Bioleta. "Bost hostorekiko lorea, goitizenez *mazustaz tintaturiko tximeleta hegalak*".

Horrela deitzen zieten bioletei poeta *andalusiarrek*. Konparatu ere, masailean, edo "maitearen" bularrean maitekiro hozka eginda geratzen den arrastoarekin konparatu izan da bioleta.

Klara eta Roberten arteko harremana maite-ekintzez, maitasun adierazpenez, mezu ezkutuez eta "aitortu ezineko" aitormenez betea izan zen. Izan ere, Schumann jotzen da erromantikorik erromantikoena. Hain ospetsua izan zen bien arteko amodiozko istorioa, opera bat ere egin zuten bi maitaleen bizitzan inspiratua, *Liederkreis* izenekoa.

Ezkundu aurretik, halako eskutitz sutsuak bidaltzen zizkieten elkarri, Klararen aitak, Wieck jaunak, debekatu ere egi zien elkarri idaztea. Euren lanen eskaintzak amodio agerpen egiazkoak ziren, eta gainera literatura bikaina. Hamasei urtez senar emazteek elkarrekin idatzi zuten egunerokoaren orriak edozein maitalek bekaitzez ikusiko lituzkeen amodiozko hitzez beteak daude. Unearen eta egoeraren arabera elkarri oparitzen zizkieten loreek eurek bakarrik ezagutzen zuten hizkuntzaren adierazgarri ziren.

Amodiozko hizkuntza desberdina da garaiaren arabera, adinaren arabera eta maitaleen izaeraren arabera... Francisco Arias Solisek **4 ERANSKINEAN** dioenez, ez dago egun egiazko amodio-hizkuntzarik.

Oso zabaldua dago, ordea, bikotekideari goitzen batez deitzea, bataiarrikoa ez den batez, batik batik intimitatean.

Robertek Klarari *Chiara, Zila* edo *Chiarina*, deitzen zion, alegia, italierazko Klararen txikigarria.

*Inauteria, Op. 9* lanaren konposizio batek, hain zuzen ere, izen hori du, *Chiarina*, indar handiko tema, bai erritmo bai sonoritate aldetik.

Baina, emaztearentzat ez ezik, bere buruarentzat ere goitizena zuen. Idazle erromantikoaren eredu peto-petoari jarraiki, irudikatutako bi pertsonarekin identifikatzen zen Schumann: Florestan suharrarekin eta Eusebius poetikoarekin, bere alter ego jotzen zituenak. Bi izen horiek ere izena ematen diete *Inauteria Op. 9* laneko beste hainbeste konposiziori.

Hirurak entzuten ahal dituzue orri honetan:

<http://www.virtualsheetmusic.com/score/Carnaval.html>

Ondoren, honako alderdi hauetan sakontzen ahal duzue:

- nola irudikatzen dituzuen hiru pertsonaia hauek (deskribapen laburra).
- zein instrumentu, hiri, animaliarekin lotuko zenituzketen haietako bakoitza.
- **2 ERANSKINEAN** ezagutu genituen *musika moldeetatik* zeinekin lotuko zenituzketen bakoitza.
- Nolako harremana izan litekeen hiruren artekoa.
- Asma ezazue gatazka bat, hiru pertsonaia horien izaerak istorio txiki baten bilbea (trama) bihurtzeko moduan.

#### Jardunaren osagarri

*Chiarina* izeneko konposizioan, bitarteen segida musika-jolas etengabea da.

*Bitartea*, musikan, bi noten soinuen arteko tonu-aldea da.

Ez ezazue alferrik galdu bitarteak lantzeari saio bat eskaintzeko aukera.



Transkripzioa: Javier Irigoien

# 1 ERANSKINA

## Bizitza erromantikoa

Robert Alexander Schumann Alemaniako Zwicklau hirian sortu zen, egun Sajoniako estatu federala den horretan. Umetatik argi adierazi zuen musikarako dohaina. Aitak berehala jarri zion piano irakasle bat, eta 7 urte betetzerako Schumannek bere lehenbiziko konposiziok konposatzen ari zen.

Aita idazlea eta argitaratzailea izaki, nerabezaro osoan, konposatzeaz gain, saiakera eta poemak idazteko erraztasuna aurkitu zuen Robert gazteak.

Eskubidea ikasi zuen Leipzigen, eta aldi berean piano eskolak hartu zituen Friedrich Wieckekin, ondoren bere emaztea izanen zenaren aitarekin, hain zuzen.

Pianoa grina ikaragarriaz jotzen zuenez, eta behatzen mugikortasuna lantzeko erabiltzen zituen baliabide mekanikoen eraginez, azkenerako eskuin eskuan kalte konponezina eragin zioten. Horrenbestez, pianista gisa zuen etorkizuna betiko hondatua zen, eta erabat irekia konposiziorako atea.

1834an Neue Zeitschrift für Musik (Musikaren aldizkari berria) izenekoa sortu zuen, eta bertan, kritikoa eta musikologo gisa, konposiziorako arauak eman zituen, eta gogor aritu zen hipokresiaren, akademizismoaren eta funtsik gabeko birtuosismoaren aurka.

Handik zenbait urtera, Klarak eta Robertek elkarri ezkontzeko hitza eman zioten, baina ez zuten Friedrich Wiecken baimenik lortu. Hala ere, 1836ko irailaren 12an Leipzigen ezkondu ziren, aitaren baimenik gabe.

Alkoholarekin arazoak izan arren, 1840an doktore honoris kausa izendatu zuten Jenako Unibertsitatean, 1943an Leipzigeke Kontserbatorioan irakasle izan zen, eta 1850ean Dusseldorfeko musikari zuzendaria.

Baina, erromantiko erabatekoa izaki eta, ez zion bizitzari zentzurik ikusten Schumannek, eta bere burua hiltzen saiatu zen, ibaira botata. 1854ko otsailean bere burua Rhin ibaiko ur izoztuetara bota zuenean, Schumannenak egin zuen. Buru argitasuna galdu zuen, eta gorputzak bi urtez eutsi bazion ere, musikaria egun hartan bertan hil zela esan liteke.

Bere buruaz beste egiten saiatu aurreko aldian, soinu-haluzinazioak zituen Schumannek, erreuma-sukarrak, psikomotrizitate arazoak eta depresio gogorra, are larriagotu zena ez zuelako gaintzen bere lagun eta babesle Felix Mendelssohnen heriotzak eragindako sentipena.

Heriotza fisikoa Endenichen ingresaturik zegoela iritsi zitzaion, 1856ko uztailaren 29an, arratsaldean eta, nonbait, erabat bakarrik zegoela. Azken asteetan Johannes Brahmsen bisita besterik ez omen zuen onartzen, ez seme-alabenik ez emaztearenik ere, hainbeste maitatu eta miretsi bazuen ere.

Schumannek 46 urte zituen orduan. Klarak, 37 zituela, gogo biziz ekin zion bere senarraren musikaren oroitzapena gozesteari. Ordurako oso ezaguna zen nazioartean pianista birtuoso baitzen eta, seguruenik, Klara Wieckek lan etengabea egin izan ez balu, bai Schumann hil aurretik bai hil ondoren ere, musikagile alemaniarraren musika ez zatekeen izanen gaur egun dena.

**“Mi corazón calmo le canta  
una vieja y hermosa canción  
que en el aire resuena  
y se pone a su lado”.**

## 2 ERANSKINA

### Musika moldeak

*Musika molde* erromantikoak Klasizismo garaioak baino libreagoak izan ziren, zurruntasunetik aparte, musikagilearen sentimenduak hobeki adierazi ahal izateko.

1. *Harmonia* modulaziotan oparoa da. Modu minorrak modu maiorrak baino gehiago maite dituzte, eta nolabait ere, itzulera gertatzen da modalitate batera, bai Erdi Arokoa, gregoriarra, bai herri musika edo folklorea, batez ere joera nazionalista, direlakoan eredura.

2. *Melodiaren* garrantzia, bai ahotserako musikan bai instrumenturakoan. Melodia adierazgarriak, lirikoak, bigunak, xehetasunak dituztenak...

3. *Erritmoa* ere musikaren osagai joriagoa eta malguagoa izanen da, askatasun handiagoaz eta baita noizbehinka, folkloreak eraginez, asimetriekin ere osatzen dena,.

4. Musika genero erromantikoak, gehienbat, aurreko aldia ere baziren: *sonata, sinfonia, kontzertua, ganbera musika, opera, obertura, erlijio generoak...*) baina orain askatasun handiagoaz formaren aldetik. Musika genero berriak ere agertu ziren, bai ahotserako musikan bai instrumenturakoan ere:

- *Lied*: ahotserako generoa, tamaina txikikoa; kantu alemaniarra da, instrumentuaz lagundua. Ohikoena da ahotserako tartea bakarlarirako izatea, era guztietako tinbreetarako, baina batzuetan, ahots gehiagorako ere konposatzen dira *lieder* hauek. Instrumentuaren laguntza, berriz, pianoarena izaten da gehienetan, eta mendearen amaieran, orkestrarena ere izan daiteke. Genero honetan ahotsaren alderdia eta instrumentuarena garrantzi berekoak izatea nahi izaten da.
- *drama wagneriarra*: tamaina handiko genero ahotserakoa, Wagnerrek landua "erabateko arte lana" sortzeko asmoz, bertan baturik, besteak beste, poesia, ahotserako musika eta instrumentala, dantza, eszenografia...
- *pianorako musika*: instrumentu honi eskainitako genero txikiak, dantzen eragina izan dezaketenak (*vals, mazurca, poloniarra, polka...*) edo izaeraz libreagoak, esaterako *gauekoak, baladak, bagatelak, inprontusak...*
- *Poema sinfonikoa*: instrumenturako eta orkestrarako genero mugimendu bakarrekoa, eta argumentu estra-musikal batekin lotura duena. Izan daiteke literatura motakoa, onirikoa, ikustekoa... argumentu horri *programa* deitzen zaio, eta kontua iradokitzea da, deskribatzea edo imitatzea baino gehiago. Musika mota honi lotua izanen litzateke *sinfonia programatikoa*, orkestrarakoa hau ere eta aipamen estra-musikalak dituen, eta mugimendu gehiagotan banatzen dena.
- *Ballet*: instrumenturako eta orkestrarako generoa, koreografia batean oinarritua eta dantzaren bidez eszenifikatua.

## Sonata, Kontzertua eta Sinfonia

**Sonata:** instrumentu batez jo beharreko musika konposizioa. Hiru edo lau mugimenduz osatua, haietatik lehena nolabait arina dela, tartekoa motela eta azkena benetan arina. Sonata egile nagusiak Beethoven eta Chopin dira. Sonata era berezi bat dago, instrumentu bakarraz jo beharrean hainbat instrumentuz jotzekoa dena, ia gehienetan hiru instrumentuz, hirukoa osatuta.

**Kontzertua:** egitura aldetik sonataren antzekoa, kontzertua instrumentu bakarlari batez joa izaten da (gehienetan pianoa edo biolina, baina haize instrumentuez ere bai, esaterako oboeaz) orkestra sinfonikoaz lagundurik. Jatorria *concierto grosso* delakoaren formatuetan du, han aritzen zirela harizko instrumentuen taldeak, talde txikiago bat, kontzertinoa, nagusitzen zela. *Kontzertu* klasikoak instrumentu jotzaile oso birtuosoak izatea du funtsa, maiz konpositoreek eurek jotzen dutela. Bakarlaria eta orkestraren arteko solasaldia eta kontrapuntua tartekatzen direko egituran oso konposizio ederrak konpondu izan dira. *Kontzertu* egile nagusiak Mozart, Beethoven, Liszt, Paganini, Tchaicowsky, Grieg, Mendelsshon, Rajmaninov eta Schumann izan dira.

**Sinfonia:** Lehenagoko musika formatatik sortutakoa hau ere, funtsean sonataren egitura bera duela, musika arte instrumentalaren gailurra da *sinfonia*. Sinfonikoa deitutako orkestra handi baten garapenean datza, bertan bildurik instrumentu anitz (harizkoak, haizezkoak eta perkusioa), tartean direla biolin bi sail, eta sail bana biola, biolontxelo, kontrabaxu, txirula, oboe, klarinete, fagot, tronpa, tronpeta, tronboi, tuba, tinbalak, perkusioa eta arpa. Formaturik ohikoenean, hiru mugimenduz eta amaiera batez osatzen da, haietatik lehenak bi tema azaltzen dituela, lehena eta bigarrena, alegia, ondoren garatzen direnak. *Sinfoniaren* hasierako maisu handiak Haydn erta Mozart izan ziren, erakusgarri handiena Beethoven izan zela, bere bederatzi sinfonia handiez, musikaren arte instrumentalaren gailurra dena. Hala ere, sinfonia-lan egile handi gehiago ere aipatu behar dira, besteak beste Tchaicowsky, Schubert, Schumann eta Mendelsshon.

## 3 ERANSKINA

### Emakumea eta musika Historian

Musikagileen zerrenda gizonezkoen izenek osatzen dute, ia osotara. Hala ere, hori ez da musika artean bakarrik.

Orain dela oso gutxi arte, ume asko hiltzen ziren eta, biologiak hala aginduta, emakumeek haurdunaldi asko eta edoskitze-aldi luzeak egiten zituzten, eta etxeko lanek etxean denbora asko igarotzera behartzen zituzten, ezinbestez.

Emakume gehienek inoiz ez zuten hartzen ez hezkuntza ez prestakuntza egokirik, eta lortzen zuten gutxi haiek ere etxeko erantzukizunak mugatuak ziren,

Gainera, gizartean orokorra zen emakumea gutxiago zelako irudipena, emakumeek eurek hala uste izaten baitzuten, haietako batzuek prestakuntza intelektual bikaina izanda ere.

Hala ere, musikak beti izan du berarekin emakumeen sentsibilitatea.

Erdi Aroan baziren emakume koblakariak: Alamanda, María de Ventadorn edo Beatriz de Día. Alfontso X.aren gortean nabarmentzen zen María la Balteira, emakume lilurariagarria, inmorala, joko zalea era espainiar koblakarien musa izatearen ospea zuena, gainera musika-lan sakroen egilea, gaia gehienetan amodioa zuela. Hala ere, koblakarien *kortesiak* amodioa delakoaren oso bestelako hizkuntza erabiltzen zuten emakume haiek; nonbait, garai haietan, eurek ez zuten idealizatzen amodiozko harremana.

"Moja musikagilea" arketipoa ere izan zen Erdi Aroan. Dakigunaren arabera, lehenbizikoa Santa Hildegarda Von Bingen izan zen. Haren musika alemaniar *minnesinger* izenekoen konposizioei lotua zen.

Zenbait erreginak ere musika heziketa bikaina izan zuten. Esaterako Akitaniako Leonor (Rikardo Lehioi Bihotzaren ama) Historiara igaro zen, bere edertasunagatik, trebetasun politikoagatik eta krudeltasunagatik ez ezik, musikariei etengabeko laguntza eskaintzeagatik ere. Musikaren alorrean eraman zuen jarduera garrantzitsua Erdi Aroan, Pizkundean eta Barrokoan Europako gorteetako emakumeek musikari eskaini ziotenaren adierazgarria besterik ez da. Hala eta guztiz ere haien lanek inoiz ez zuten iraun eurak hil eta aurrerago.

Pizkundean eta Barrokoan, musikariak maiz ibiltzen ziren bidaian, eta emazteak eta alabak ere haiekin batera, eta ohikoa zen aita edo senarraren kontratuan haiek ere sartzea. Eurek ere euren musika lanak konposatzea arrunta zen, esaterako Francesca Caccini, Camerata Florentinako Giulio Cacciniren alaba, edo Vittoria Archilei, abizen bereko konpositorearen emaztea. Francesca Caccinik 1623an idatzi zuen Historiako lehen opera emakumezkoena, nahiz eta, une hartan, gorteko emakume anitzek, eta baita erreginek ere, Maria Estuardo edo Ana Bolena kasu, konposizioaren artean jardun zuten. Espainian ospetsuak izan ziren Saboiako Maria Luisa, Felipe V.aren emaztea, eta Braganzako Barbara, Fernando VI.aren emaztea.

Klasizismoan ere izan ziren emakume ospetsuak, interpretazioan eta konposizioan nabarmendu zirenak. Lehenik eta behin Austriako Maria Teresa enperatriza eta haren alabak aipatu beharrak dira, amak bultzatuta aritu baitziren alabak gorteko operen antzezpenetan.

XIX. mendea emakumezkoen konposizioaren urrezko garaia izan zen. Klase ertaineko emakumeen heziketak gutxienik kantua eta piano jotzea hartu behar zuen barne, eta oso preziatua zen bertute hau ezkontzari begira.



## 4 ERANSKINA

**AMODIOZKO HIZKUNTZA** Francisco Arias Solís

*"Hoy la tierra y los cielos me sonríen,  
hoy llega al fondo de mi alma el sol,  
hoy la he visto..."*

*La he visto y me ha mirado...*

*¡Hoy creo en Dios!*

Gustavo Adolfo Bécquer

(...) Poesiak senimenduen kolorea ematen dio bizitzari. Elkarbizitzaren alor magnetikoa sortzen laguntzen du, pertsona bakoitzaren berezko tonua baldintzatzen duten orientazio ildoekin, eskortzo, perpektiba, distantzia eta temperatura desberdinez...

XX. mendearen hasieratik, estetika kontu hutsera mugatu izan da poesia; "artearen deshumanizazioa" deitutako fenomeno gertatu zen. Espainian, Zorrilla eta Campoamorren ondoren, ez da izan herri poetarik. Ruben dario bera ere, bere jeniotasuna eta indar adierazgarriarekin ere, ez zen halakoa izan, ezohiko zorte ulergarria izan zuten zenbait poesia sortu bazituen ere. Ez dira herrikoiak 98ko belaunaldiko poeta espainiarrak; Unamuno behinik behin ez, ez oso eta ez gutxi ere, baina Machadotarrak ere ez, ez eta 27 koak ere. Salbuespen gutxi batzuk kenduta (Lorcaren edo Albertiren zertxobait) poesia minoritarioa zen, goi mailako baliokoa, intelektualentzat egina. Hortik aurrera, poeta, irakurle eta gainontzekoen kritikoentzat bakarrik. Eta gauza bera gertatzen da beste hizkuntza batzuetan.

Belaunaldi berriek ez dakite bertsozik memoriaz, mendeetan hala izan bazen ere. Ez dute buruan gordeirik forma liriko sorta bat. Arrazoiak anitz dira, alegia: bat, azken aldiko poesiaren ezaugarria, maiz joera kriptikorakoa baitu, neurri eta erritmo kontuak alde batera utzita gogoan gordetzea zailtzen baitu; beste bat, *etengabeko* musika hor, *etengabe* egotea, "giroan", temati. Azken garaian "kantua" nagusitu da, maiz esaldi bakarrera murriztua, etengabe errepikatzen dena, gehienetan sekulako zalapartaren erdian. Musika horretan murgiltzea, nahas-mahas irrazionalean, ez hitz eta ez esanahirik ez dela, horrek hartu du poesiaren lekua.

Honek berekin dakar sentimenduen "eskorbutoa", bitamina liriko faltagatik. Bestela, zera ere pentsa liteke, areto burrunbatsuetarako joera hori ez hitz egiteko aitzaki ona dela, eta atzetik jende anitzek duen "hizkuntza inseguritatea" ezkutatzekoa ere bai.

Horrek guzti horrek bizitza errealean ondorio erabatekoak ditu amodiozko hizkuntzarentzat. Tradizioz, literaturak "piztu" izan du. Zenbait moldetan, atzean izan ditu poesia, antzerkia edo eleberraren ereduak. Ez dugu esan nahi genero literario horietan bezala hitz egiten zenik, baina haietatik inspirazio bat etortzen zen, urrunagokoa edo hurbilagokoa, hitz egiten zutenengana, eta ez ziren bazter geratzen eragin handiko egileak ezagutzen ez zituztenak. Ereduak, arauak ziren, gizarte maila desberdinek eraldatuak, eta azken buruan norbanakoen pertsonalitateak berak aldatuak.

Literatura eredu hauek aukera ematen zuten jatorrizko hizkuntza sortzeko, ez baita hutsetik abiatzen, jeniotasun kasuetan ez bada. Zalantzan jartzekoa da, ordea, egiazko amodio-hizkuntzaren gaineko eragina oso bizigarria izanen ote zen, literatura horretan bertan amodioaren adierazpenean gainbehera antzematen baita.

Espainian, bederen, ez dago, gure garaian, amodiozko hizkuntza indartsurik. Ia inork ez luke ausardiarik izanen gure garaiko azturak benetan agertuko lituzkeen elkarrizketa amodiozkoa idazteko. Hizkuntza hori, baldin badago, minoritarioa da, beharbada bitxia, erabat pertsonala, norberaren bizipenera mugatua. Segur aski hainbat gizon eta emakumek egiazko amodio hizkuntza erabiltzen dute, baina, nire ustez, argi dakite eurek ere zerbait "pribatua" dela, orokortu ez daitekeena, arrotza, ez balekoa, ez egokia irudituko lukeena besteentzat, hau da, ez dela ohiko kontua. Eta poetak esan zuen moduan: *"Hitz kontua da eta, hala ere, zu eta biok, gertatu denaren ondoren, ez gara behin ere ados jarriko errua norena den"*.